# Urteko 10. Igandea B

# 129. Salmoa

*L.a. 95 / S.a. 9*




**Jauna bihotzez da betea,**
**zoin maite duen salbatzea !**

Leize hautarik zuri oihuz,
entzun nezazu, entzun, Jauna !
Dena beharri nitaratuz,
entzun nik egin dei auhena !

Gaizkiez orroit bazaude zu,
zuri so, Jauna, nor dagoke ?
Denen barkatzen maite duzu :
Beldur bezenbat badut bake.

Jaunaren beha dut bihotza,
egia daukat haren hitza.
Nik seguràgo Jauna goza,
gau zainek baino goiz-argia.

Jauna bihotzez da betea :
Zoin maite duen salbatzea.
Hak du Izrael salbatuko :
Hoben guziak joanen daizko.

Itzulpena : Xavier Diharce - Iratzeder O.S.B. ; Airea : Gabriel Lerchundi O.S.B.

Tout droit propriété de l'abbaye de Belloc